



1969

Olatzagutiko ikastolaren sorrera

1971

Altsasuko ikastolaren sorrera

1972

Urdiaingo ikastolaren sorrera

1976

Aralarko Mikel Donea kooperatiba sortu zuten gurasoek

1979

Altsasuko Iñigo Aritzta ikastetxearen mustutzea

1981



Aurreneko Nafarroa Oinez

1982

Ziordiko lehen ikasleen matrikulazioa

1985

Sakanako bi eskualdetan banatu zen: Altsasu eta Etxarri Aranatz

1992

Urdiaingo ikastolaren ixtea



1993

Nafarroa Oinez

1995

DBHren ezarpena ikastolan

1996

Altsasuko ikastolaren 25. urteurrena

2017

Lehen Hezkuntzan ADAXKA proiektua martxan jarri zen

2016

Haur Hezkuntzako KABI proiektua martxan jarri zen

2014

EKI proiektua martxan jarri zen

2011

Olaztiko ikastolaren ixtea

2018


Nafarroa Oinez Altsasun

2009

KEI Kalitate Egitasmo Integrala saria jaso zuen Euskal Herriko lehen ikastetxea

2008

Txioka haur eskola mustu zen



Nafarroa Oinez'18
— Altsasu —



Nafarroa Oinez

2005

1998

Navarro Villoslada eraikinera pasatu zen Haur Hezkuntza

“Guztiok maite eta sinesten dugun proiektu baten kide gara”

IBAI IRIARTE SAN VICENTE IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko 370 ikasle hartzen ditu Iñigo Aritza ikastolak. 38 irakaslek eta beste 8 langilek lan egiten dute bertan. Eta horien guztien buru da Iriarte.

Ardura berriari eta Nafarroa Oinezi heldu behar. Zer moduz moldatu zara?

Bigarren ikasturtea da, baina joan den urtean sartzearekin batera jakitun nintzen zetorkigun erronkaz. Ilusioz eta gogoz eutsi diot apustuari, azken finean Ikastola Proiektuan sinesten dut, hau da, hezkuntzatik gure herri eta kulturaren alde lan egiteko ikastolek jolasten duten paper garrantzitsuan eta ondorioz norantza horretan bultzatzeko sartu nintzen.

Iñigo Aritzaren 3. Nafarroa Oinez da. Aurrekoak ezagutu zenituen?

Etxean beti izan dugu Nafarroa Oinez eta Herri Urratsera joateko ohitura. Altsasuko aurreko edizioak haur eta gaztetxo moduan ezagutu nituen.

Bestalde, ingurukoei entzutearen ondorioz ere badut aurreko edizio horien berri.

Eta, zer da ikastola bat?

Proiektu herritar bat da. Euskararen berreskurapena oinarri, irudimenaz eta determinazioz asmatuak tresna bat. Egun, oinarri berak izanda, garai berriei erantzuteko egokitzen ari dena, hau da, herri, gizarte zein norbanako moduan gizarte ireki, aitz, solidario, parekide eta euskaldun baten bidean pertsonak hazi eta hezi nahi dituen.

Zer ezaugarri ditu Iñigo Aritzak?

Bada, aurrez aipatu moduan, Iñigo Aritza komunitate bat da. Guraso eta familien parte hartzea handia da, nahiz eta beti berrindartze lanetan jarraitu, auzolana ikastola honen egunerokoaren isla da, eta horrek ezinbesteko balioa du. Horretaz aparte, Ikastolako langileen inplikazioa eta dedikazioa ere itzelak dira. Nire ustez, ikastolan gauden guztiok, izan langile izan familia, jakitun gara hona ez direla haurrak bidaltzen, guztiok maite eta sinesten dugun proiektu baten kide gara.

Nola islatzen da hori ikastolako komunitatean?

Ikusi besterik ez dago Nafarroa Oinez antolatzeak eskatzen duen guztia zer nola ari garen betetzen. Bada urte bete baino gehiago 150tik gora familia astero-astero elkartu eta lanean ditugula antolaturiko 14 lantaldeetako batean. Eta horri ohiko funtzionamenduaren baitako lantaldeak batu behar zaizkio: mantenua, jaialdia, euskara... Bitarteko ekonomiko handirik ez dugu, baina langile zein familien inplikazioa bai.

Islarik badu ikastolatik kanpo?

Nik uste baietz. Gure ikasleei beraien herri eta kulturarekiko maitasuna eta atxikipena zabaltzen saiatzen gara, eta uste dut hein batean bedeiño lortzen dugula. Herrietako hainbat dinamiketan parte hartzen dugu, izan inauterietan edota eguberrietan, izan ikastola moduan edota ikastolako kideak, herri dinamika guzti horietan parte hartzen dute.

Ospakizunaren antolaketak ikastolaren eguneroko martxari eragin dio?

Orokorrean ez, nahiz eta horrelako urte berezi batek momentu puntaletan beti eragiten duen. Hala ere, Nafarroa Oinez antolatzea ikastolaren ohiko antolaketa eremutik kanpo dago, beraz, maila akademikoak bere ohiko jarduna burutzen du eta orduz kanpo Oinez eusten diogu, ikastolako famili guztiarekin batera. Hala ere, azken asteetan lastailaren 21aren eragina zuzenago nabaritzen hasi gara, bai ikastolan bai etxeetan, azken finean guztion ahoan dagoen kontua da. Baina orokorrean klaseak normal-normal garatuko dira bezpera bitarte.

Oinezen lortutako dirua zertara bideratuko da?

Mendiko ikastolak dituen oinarriko beharrak asetzeko lehenik eta behin. Maitasun eta gogo handiz eraiki zen ikastola da gurea, baina diru gutxiz.

Zer nolako zaharberritzea duzue buruan?

Bada, lortzen denaren arabera, gehiago edo gutxiago egingo dugu. Hala ere, lehenago aipatu moduan, teilatua berritu itoginena konpontzeko, galdara berria jarri, ikastolako bigarren solairua irisgarria bilakatu... oinarriko gauzak egin nahiko genituzke, hortik aurrea aukerarik balego, eraldaketa pedagogikoan sakontzeko barne espazioak antolatu nahiko genituzke, baina lehenik eta behin oinarrikoena.

Zer da hezkuntza eredu sendotzearen hori?

Heziketa prozesua iraultza bat jasaten ari da gurean. Ikastolen mugimendua 105 ikastolek osatzen dugu eta guztion arteko sareari esker, bizi dugun mundu aldakor honetan eragiteko ikasleak hezi eta hazi nahi ditugu, euskaratik eta euskaraz. Beraien gaitasun eta indarguneak azaleratuz, herritar osoak, aurretik aipatu ditudan oinarriko balore horiek izango dituztenak hezi. Eta horretarako, alor desberdinetan ematen ari diren ikerketek begira gaude, neuro zientziak, heziketa emozionala, soziologia, pedagogia... Eta hauek oinarri, irakaskuntza prozesuak eraldatzen ari gara, haur bakoitzaren eritmoari begira, proiektu bidezko lanketak sustatzen, IKTen erabilera indartzen, ebaluazio jarraituan sakontzen, ezagutza teorikoa errealtate aldakorrei nola aplikatu azaltzen...

Ikasleei gizarte aldakor honetan libreago izan daitezen oinarriak jartzen ari gara.

Despeditzeko, zuzendariak zer eskatzen du iganderako?

Giro ona zentzu guztietan, bai klimatologikoki zein jendearen artekoari. Hortik aurrera, euskarak eta ikastolek laguntza behar dutela azpimarratu nahiko nuke, Nafarroan euskararen presentzia indartzeko ezinbesteko papera jolasten dugu ikastolok eta hauek guztion babesa behar dute, baita igandean ere.



BAIZA motor

VIKING

STIHL

El rincón de YERBERO

948 461 734
Zumurdineta
Industrialdea 6
ETXARRI ARANATZ

948 500 392
Akaborro
Industrialdea 14
IRURTZUN



“Inklusibitatea hori da: zaku berean desberdintasun guztiak egotea”

ISABEL SALEGI RIVERA IÑIGO ARITZA IKASTOLAKO ORIENTATZAILEA
ETA NAFARROA OINEZKO INKLUSIBITATE BATZORDEKO KOORDINATZAILEA

Hasteko zer da inklusibitatea?

Definizio asko ditu. Baina guretako aberastasuna hitzan oinarritzen da. Aberastasunaren ikuspuntutik aniztasuna begiratzea da inklusibitatea. Horrek suposatzen du denok desberdinak izatea. Denok ditugu ekarpenak egiteko eta elkarbanatzeko gauzak. Inklusibitatearen izenarekin Nafarroa Oinezen proiektu potoloa eraiki nahi dugu.

Ikastolan nola lantzen da?

Gu oso harro gaude gure ikastolan. Betidanik gure ikuspuntua oso inklusiboa izan da. Desberdintasunean beti aberastasuna ikusi dugu, eta elkarlanean aritzeko modu bat. Betidanik proiektu askotan aritu gara. Ikastolan Pentazitare proiektuaren bidez baloreen lan-keta sistematikoa egiten da, ikastola guztiona eta guztiendako da. Izan ditugu hainbat aniztasun, dibertsifikazio eta funtzio-aniztasun oso esanguratsuak dituzten ikasleak. Eta erantzun egokia emateko nahia izan dugu beti. Esan behar da horretan aritzen garenok adituak garela. Baina aurrera eramateko ezinbestekoa izan da klaustroaren, familien eta ikasleen partaidetza. Gaur egun bi gela espezifiko ditugu. Erronka handia izan dira. Nafarroako ikastolen artean trantsizio gela izaten lehenak izan ginen. Modu berean orain erronka

berria Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan gela espezifikoak ikastetxe arruntean izatea izan da. Orain arte zentro espezifikoan egon behar zuten ikasleak gure ikastolan bertan daude, bertan sortu dugun eskualdeko gela bat. Ez da orain asmatu dugun eredu bat, betidanik sinistu dugun eredu bat baizik.

Zer dira trantsizio gela eta hezkuntza espezifiko gela?

Trantsizio gela da erantzun egokia ematea ikastetxe barnean aniztasun espezifiko oso esanguratsuak dituzten ikasleei. Programak oso zehatzak dira, estrategia desberdinak, oso aratuak izan behar diren espazioak. Hori Lehen Hezkuntzari dagokionez. DBHri dagokionez, normalean zailagoa da espezifikotasun handia duten ikasleak ikastetxe arruntetan ikastea. Lortu dugu izatea horrelako unitate bat, eskualdeko unitate gisa. Horrek esan nahi du ez direla bakarrik ikastolako ikasleak hemen daudenak, beste ikastetxeetakoak etortzen dira ere. DBHn eskolatuta daude. Guk DOH 2 gela deitzen diogu, Derrigorrezko Oinarritzako Hezkuntzako Bigarrena, DBHri dagokiolako. Hori bai, berria da. Oso gutxitan ematen da. Ikasle horiek beste ikasleekin parte hartzen dute ikastolen egunerokotasunean eta parte hartzen dute haien erreferente

gelakoekin hainbat gaietan. Aldi berean, haien premia espezifikoak dagokionez, erantzun egokia jasotzen dute. Erronka oso polita izaten ari da. Hori argi dago; ikastolan lan egiten dugunona, eta gurasoena ere bai. Eragile guztiei eskerrak eman behar dizkiogu halako ekintza bat bulkatzen duelako.

Inklusibitatea ikastolan barneratua duzue. Orain gizarteari erakustera inklusibitatea izan daitekeela?

Hori zen gure erronka. Nafarroa Oinez antolatu behar da, eta esan genuen: zergatik ez zabaldu? Guk sinesten dugun eremuan ikastolatik kanpo lantzea. Horretan aberastasuna ikusten dugu. Sentsibilizazio lan handia aurreikusten genuen egiteko. Ez dugu ezer asmatu behar, beste ospakizunetan modu batean edo bestean kontuan hartzen dena. Baina, proiektu bezala, garrantzia handia zuela iruditzen zitzaigun: gizartea, eta parte hartzen duten denek, kontzientzia hartzea aberastasunaren ikuspuntutik aniztasunari beste begirada orokor bat emateak duen garrantzia.

Inklusibitatea nori dago zuzenduta?

Denok izan behar dugu inklusiboak. Inklusibitatearen aurreko kontzeptua integrazioa zen. Integrazioak aniztasun desberdinak eremu normalizatu batean sartzea suposatzen du. Inklusibitatea

Iñigo Aritza ikastolak Nafarroa Oinez festa ibiltariari berritasun bat erantsi dio aurtengoan: inklusibitatea. Ospakizuneko ardatzetako bat da. Kontzeptu hori zer den eta ospakizunera nola eramán duten azaldu digu horren ardura duen batzordeko koordinatzaileak.

IZI
Nafarroa Oinez'18
Altsasu

NAFARROA
OINEZEN
ZU
LEHENDABIZI!

URRIAK
21
ALTSASU

#BIZI #OinezAltsasu

IÑIGO ARITZA BAITOLA
IKASTOLEN KARTEA



aurrerako pauso bat da. Gizartean denok kabitzen gara. Denok barruan gaude. Ez da lehendik kanpoan zegoen norbait barrura sartzea, baizik eta barruan denok gaudela. Oinezek aurkezten duen proiektua ez da bakarrik funtzio-aniztasunaz edo halako arloez ari. Hitz egiten ari gara generoaz, arrazaz, osasun egoeraz, adin aniztasunaz, hizkuntza aniztasunaz... Oso egokia iruditzen zitzaigun denak sartzea. Inklusibitatea hori da: zaku berean desberdintasun guztiak egotea. Denok desberdinak garelako. Eta gizarteak eta pertsonak aberastasuna hor dugu: desberdinak izatean eta denok ekarpena egitean.

Hori guztia nola txertatzen da Nafarroa Oinezen?

Alde batetik, oso erraza izan da. Gero, bada bide luzea. Modu askotan txertatu dugu. Eta jendeak oso jarrera egokia izan du. Zehazki zer egin dugun? Atzera begiratu eta gauza asko egin ditugula ikusten dugu. Lehenengo egunetik lekukoa Altsasura iritsi zenean, guretak oso polita izan zen Altsasuko kioskoan, gure lekukoa-ekin, gure lehendakariaren hitzkin, zeinu-hizkuntzako interprete bat aritzea. Lehen seinalea izan zen. Denok ikasi dugu hasiera hasieratik BIZI zeinu hizkuntzan nola egiten den. Nafarroa Oinezen leloak, abestiak, dantzak, erronkak, Atxitamutxita ipuinak, eta hainbat eta hainbat ekintzak inklusibitateari buruz hitz egiten dute. Zeharkako lan asko egin dira. Gu batzorde askotan gaude. Eta batzorde guztietan galdera hori dute: eta inklusibitatekoek zer esaten dute? Edo nola eginen dugu inklusibitatea txertatzeko?

Prentsaurreko guztietan zeinu-hizkuntzaren adierazlea izan da. Komunikazio guztietan saiatu gara piktogramen bidez informazioa lutzatzea. Edozein dokumentuetan, edo gehienetan, piktogramak agertzen dira, sentsibilizatzeko eta jende guztiarekin beste modubatean komunikatzeko. Hori inklusibitatearen beste adierazle bat izan da. Hasieratik arroparekin ere. Hori irudi desberdinak txertatu genituen, belaunaldiena, generoarena, irudi fisikoa, funtzio-aniztasunak, hainbat kulturatakoak... Erakuslehoetan asko landu da estereotipotan ez erortzeko. Denda bera nahikoa iris-

tatzeko Nafarroako ikastola guztietan hainbat tailer egin genituen ere. Irisgarritasuna lortzeko web orrian ere lan handia egin genuen. Ikusmen-aniztasuna dutenendako grabazioak daude, esate baterako. Irudiari dagokionez, grafismoko jendea oso adi egon da koloreak eta irisgarritasuna bermatzeko... Gauza asko.

Beraz, zuek eta ikastolako komunitateak ikasi duzue!

Hori da. Gehiago trebatu gara. Hori ere ahalegin handiagoga egin dugu irisgarritasuna bermatzeko. Eta, bai, denok batera asko ikasi dugu. Hasiera-hasieratik erakunde ba-



garria da. Badaude ere praktika onen sustapenerako instrukzio batzuk. Ibilbidea egiterakoan irizpide asko kontuan hartu dira.

Adituen aholkularitza izan dugu. Ikuspuntu hori eman nahi izan dugu, profesionaltasuna. Gauzak ongi egin behar ditugu. Hori izan zen gure konpromisoa toki guztietan. Argazkien bidez bizi inklusibitatea ekintza egin genuen. Eta ikastola guztietara iristea saiatu ginen. Inklusibitatearen proiektu hau txer-

tzuekin harremanetan izan ginen. Ikuspuntu profesionala edo adituen eman nahi genuen. Ongi egin dako proiektu bat egiten saiatuz. Hanka sartu dugu askotan, jakina. Erakunde desberdinekin elkarlanean aritu gara eta eskerrak eman beharra dugu: Biak Bat, Cermin, Eunete, Once eta Ibiliz, Sakanako Mankomunitateko Anitzartean Zerbitzua, Altsasuko Udalaren Berdintasun Zerbitzua... Ikuspuntu hau zabaltzen eta garatzen asko lagundu digute.

ARKANGOA TABERNA

**GOSARIAK,
HAMAIKETAKOAK,
BAZKARIAK ETA
PINTXOAK**



ARKANGOA KALEA, 3
31800 ALTSASU

"Oinez inklusiboak ikusgarritasuna, kontzientzia hartzea eta sentsibilizazioa ekarriko du"

M^a LUZ SANZ ESCUDERO CERMINEKO PRESIDENTEA

Ezgaitasuna duten Nafarroako pertsonak eta haien familiak hainbat erakundetan antolatuta daude. Haietako 44 Cerminean elkartzen dira. Iñigo Aritza ikastolako Nafarroa Oinez inklusiboak izateko Cerminean laguntza izan du.

Nafarroa Oinezko antolakuntzarekin harremanetan izan zarete aurretik?

Iñigo Aritza ikastolatik gurekin harremanetan jarri ziren. Alde batetik, Cermin berak parte hartu du, baita elkarrekin batzuek ere. Pertsona guztiak kontuan hartuko lituzkeen gero eta inklusiboagoa den Nafarroa Oinez bat egin nahi zutelako, proposamen hori egin ziguten. Ez soilik ezgaitasuna duten pertsonak, bestelako desberdintasunak dituztenak ere; beste batzuetan kontuan hartu ez dena. Garrantzitsua iruditu zitzaigun. Badaude ezgaitasuna duten per-

tsonen artean euskara hizkuntza dutenak, ekintzetan parte hartzen dutenak, gizarte-bizitzan parte hartzen dutenak. Urtero egiten den ekitaldi batean haiek ikustarazteko modua ere bada. Behin hasita pertsona guztiendako irisgarritasuna betiko geldituko dela espero dut. Oso interesgarria iruditu zitzaigun eta lan eginez gauzak egitea lortu dugu.

Zein izan da zuen egitekoa?

Ezgaitasun guztien ikuspegi orokorra eman dugu, Nafarroa Oinez ahalik eta irisgarriena egiteko, bai ibilbidean, bai edukietan... ezgaitasuna duten per-

Inklusibitatearen dekalogoia

1. Denok gara berdinak desberdinak garen aldetik.
2. Ikusi pertsona guztiak berdintasun ikuspegi batetik.
3. Pertsona osoari eskaini arreta, ez soilik desberdintasunei.
4. Aniztasuna aberastasun gisa ulertu.
5. Jendarte inklusiboa eraikitzen lagundu.
6. Aniztasunaren adibideei erreparatu.
7. Errespetuz komunikatu.
8. Irisgarritasuna erraztu.
9. Elkartasunez jokatu.
10. Ondo pasa Nafarroa Oinez ikuspegi inklusibotik biziz.

Guk zeharkako lan hori egin dugu ikastolan inplikaturago dagoen jende guztiari helarazteko.

Piktogramak, kolore gamak, audioak, zeinu-hizkuntza... Horiek guztiak nori zuzenduta daude? Printzipioz, denei. Adibidez, piktogramak. Euskara maila desberdinak daudela, bada, euskaraz dagoen guztia ulertzeko irisgarria egin. Grafiko aldetik laguntzen du. Adimen-aniztasuna dutenei laguntzen die ere. Adinduei. Denei ikuspuntu anitzagoa ematea ere bada.

Nola egiten da hori guztia Nafarroa Oinez egunean txertatzeko?

Orain gauzak nola borobiltzen saiatu garen ikusten dugu. Hor gauden guztiak erronka bera dugu eta oso polita da edozein batzordean egotea, edo jendearekin, eta entzutea: inklusibitatea, inklusibitatea, inklusibitatea... Kontuan hartzen da. Nola? Komunikazio lana izugarria da. Inklusibitatea eta irisgarritasuna denei iristea... Hasierako ekitaldietan zeinu-hizkuntza interpretatzen izan den dugu.

Pailazoekin, adibidez, ondoan interprete bat zeinu-hizkuntzarekin arituko da. Seinalezapenean saiatu gara areagotzen. Gune guztietan braillean idatzitako gunearen mapa. Esku-orriak braillean izan den ditugu. Ibilbidea erliebez egina ere. Panel handian jarri dugu denek ikusteko. Ikurren bidez egiten dugu. Distantziak markatzearena, jendeak jakiteko duen toki batera iristeko gaitasuna. Atsedean guneak ere areagotu ditugu, adinduendako, haurrendako...

Irisgarritasuna bermatu dugu ibilbidean gune guztietara iristeko gaitasuna izateko. Mendian egiten da eta hor ez da hain erraza leku guztietan irisgarria izatea. Tabernak egokituta daude. Hori sanfermine-

tan egin zen. Lan bikaina egin dute muntaian daudenak. Lortu dugu barra guztiak gurgildun-aulkietarako egokituak izatea. Egokitutako komunak bereziki zainduta egonen dira, garbitasuna bermatuta. Apar-kaleku egokitueta lekua izateko erantzun zabalagoa ematen saiatu gara. Informazio-gunetan, informazio irisgarria areagotuko da. Guneetan, ibilbidean, aparkalekuean inklusibitate-boluntarioak egonen dira. Funtzio-aniztasuna, adinarena eta elikadura asko landu da. Prestakuntza hau egin den bitartean kontuan hartu dira zeliakoak, beganoak, alergiaren sinbologia txertatzea eskaera orrietan...

Lan handia dago hor atzean.

Bai. Eta bereziki aipatu behar ditugu inklusio tailerrak. Bi motatakoak izan dira. Alde batetik, 1. gunean kultura desberdinetako tailerra, Anitzartean zerbitzuren eskutik. Aberastasun guztia erakusgai izan den dugu, hortxertatzeko. 3. gunean

inklusibitatearen eremua izan den dugu, funtzio-aniztasunari dago-kiona. Hor tailerrak izan dira, Oncekoak, Cerminekoak... Hor inklusibitatearen presentzia areagotuko da. Emakumeon gaiarekin, hor ere badago inklusibitatea. Altsasuko Udaren Berdintasun Saileko arduradunaren laguntza izan dugu. Puntu morean informazioa mugimendu feministak banatuko du. Pertsona guztiarekin praktika onen sustapena areagotu nahi dugu. Horretarako dekalogo erraz bat egin dugu. Errepikatuko da eta ikusiko da, ikuspuntu hori denon artean nola indartu dezakegun. Denok gara inklusiboak. Mundua denondako da. Hori da lortzen saiatzen ari garen helburua.

Egindakoaren balorazioa zein da?

Oso ona. Askotan baloratzen dugu zeinen ongi garatzen ari den proiektua... Oso gustura gaude egiten dugun guztiarekin. Gure asmoa gauzatzeko ari garen proiektu hau hurrengo Nafarroa Oinezi pasatzea da. Eta, jakina, haiek handitzea. Ez gara ezer asmatzen ari. Baina gai honi indar pixka bat gehiago ematen, bai, horretan saiatzen ari gara. **Beraz, inklusibitatea Nafarroa Oinez eta ikastolan gelditzeko etorri da?**

Bai. Horrela onartu da eta hori da asmoa. Guk egindako proiektu hau hurrengo Nafarroa Oinez segitzea. Egunean bertan eta zeharkako ekintzetan lantzea. Guk egin duguna hor gelditzen da. Espero duguna da hurrengo Nafarroa Oinez in-dartzea.

Dekalogoia betetzea eta hobetzea. Hori da. Erronka polita da. Eta, nik uste, denok prest gaudela aurrera eramaten laguntzeko.

tsuna guztiengana iristeko. Nafarroako Ikastolen Elkartearen bidez, hainbat ikastolatan tailerrak egin dira: ezgaitasuna duten pertsonen inguruko tratamendua, nola jokatu eta haien larruan nola jarri. Zati batean ezgaitasun desberdinak dituzten pertsonak nola tratatu azaltzen da. Askotan ez baikaude ohitura eta ez baitakigu nola jokatu. Gero hainbat ekintzen bidez pertsona horien larruan jartzen dira. Zehazki, tailerretara entzumen ezgaitasuna eta down sindromea duten bi pertsona joan ziren. Euren bizipen eta hezkuntzan bizi izandakoak kontatu zituzten. **Halako tamainako ospakizun batean inklusibitatea horrela tratatu da?**

Nik uste dut ezetz, aurreneko aldia da kontuan hartzen dena. Nahikoa zailtasun ditu. Espazio irekian da, eta gauza asko ezin dira egin. Baina ikastolak urte guztian egin dituen ekimenetan kontuan izan da espazio irisgarria izatea, dendan eta ekitaldietan. Hori landu da, eta orain arte ez zen egin. Igandeari dagokionez, aire zabalean egitean zenbait gauza egiteko zailtasunak daude. Baina haiei beti esan diegu asmoa dela gutxienez gu kontuan izatea. Eta

ibilbidearen zatiren batzuk irisgarriak izatea, barra eta komuna batzuk irisgarriak izatea. Ekimenen bat irisgarria izatea, edo ezgaitasuna duten pertsonak parte-hartzaile izatea. Hori egiten da. **Zuendako zer suposatzen du Nafarroa Oinezek emandako pausoa?**

Jende asko biltzen da. Horrek eragina du. Egingarria dela ikustean beste toki batzuetan egitera animatu daitezke. Batez ere, ikusgarritasuna, kontzientzia hartzea eta sentsibilizazioa ekarriko du.

Inklusibitatea lortzeko egitekoak daude oraindik.

Batez ere ikusgarritasuna. Mundu guztia kontziente izan dadila noizbait lerroaren beste aldean egon daitekeela: ezgaitasuna izan dezakeen pertsona bat izan gaitezkeela, aldi baterako edo betiko. Eta hori guztia pertsona denondako pentsatua eta prestatua egon behar du, pertsona guztien eskubideak aitortzen ditu. Gure aldetik Iñigo Arizta ikastolari eskerrak ematea. Guztiengan pentsatzeagatik izan duten interesagatik. Haiek ikastolaren DNAn aniztasun-arreta nahikoa sartuta dute, baina Nafarroa Oinez parte hartuko duten guztiei transmititu nahi diete.



Sakanaoptika
optometria - audiometria - hontakologia



948 563 124
Intxostia zeharbidea 10
Altsasu
www.optikasakana.com

IRURA SA
ERAIKUNTZA-MATERIALAK
ETA OSAGARRIAK

MOTA GUZTIETAKO ERAIKUNTZA
MATERIALA ESTALDURA
DESBERDINEN KONPONKETA,
TEILEKIN, TXAPEKIN, PANELEKIN...
KONPONBIDE GUZTIAK

948 460 187
610 523 717

jesuairura@telefonica.net
www.iruramaterial.es.com

ARBIZU



BIZI

BATZORDEAK



Osasuna



Pertsonala



Osasungintza




Materiala



Mantentzerdura



Komunikazioa



Delta Consultores, enpresen arlo desberdinetan adituak diren diziplina anitzeko 30 aholkularik osatzen dute, eta enpresen **lehiakortasuna hobetzea** du helburu konponbide integralak eskaintzen dituzten aholkularitza zerbitzuak eskainiz.



📍 C/ Garrayre, 24-26. 31005 Pamplona (Navarra)

📞 T 948 238 700 F 948 239 551

✉️ E delta@delta.es www.delta.es

1 BIZI

10:00 Mustutze ekitaldia
11:00 Erronka
12:00 Etorkizuna dantza taldea
13:00 Demode Quartet
14:00 Amaren Alabak
15:00 Potxin eta Patxin pailazoak
15:30 La Banda del Jefe Bigun
17:00 Moonshine Wagon

EGUNEAN ZEHAR:

- Inklusibitate-tailerra
- Paella Benigno Mendia jantokian. Ondoren, Kuxkuxtu Txarangarekin kantuz.
- Bizi mural-margotze irekia
- Haurren hiria
- Haur jarduerak: puzgarriak, tailerrak, ludo-teka, globoflexia eta abar.
- Atxitamutxita photocalla

2 KANTA

10:30 Nerabe
11:30 Anita Parker
13:00 Erronka
14:00 Erronkaren sari-banaketa
15:00 Trikidantz
16:15 Zartako-k
17:30 Oihan Vega

EGUNEAN ZEHAR:

- Gazteentzako puzgarriak
- Euskal Kirolari Txurruren eskutik
- Bizi photocalla

3 TXIO

10:00 Herri kirolak
11:00 Sega saioa
12:00 Erronka
13:00 Kiki eta Moko pailazoak
14:30 Xabi Sarria i el Cor de la Fera (Herrialde katalanak)
15:45 Ezetaerre (Galiza)
17:00 Tximeleta

EGUNEAN ZEHAR:

- Inklusibitate-tailerra
- Buruhandi eta erraldoien bilgunea
- Giro oneko ekitaldiak
- Haur jarduerak
- Atxitamutxita photocalla




- IRISGARRITASUN OSOA
- ERDI MAILAKO IRISGARRITASUNA
- EZ DA GUZTIONTZAT IRISGARRIA

3 DANTZA

- 10:00 Erronka
- 11:00 Hodei magoa
- 12:00 Irrien Lagunak
- 13:30 Trikiteens
- 15:00 Beietz
- 16:30 Gauargi

- EGUNEAN ZEHAR:
- Haur jarduerak
 - Ipuinak eta dantzak
 - Abentura parketa eta robotika txokoa
 - Bizi photocalla

PORTUKO okindegia



Altsasu: 948 563 822
 Etxarri Aranz: 948 460 988
 Lantegia: 948 467 153

ARALAR
FERRETERIA · BURDINDEGIA ·

ondo pasa festetan

LAKUNTZA
Uriz Kalea, 18 beheko
948 464 806
administracion@aralarferreteria.com

A-Zero
Kopiagintza

Iruñerriko
inprimategi
digitala

Donantes de Navarra 9 · 31013 BERRIOZAR
948 076 495 · a-zero@ono.com

antartiko
Munduko koadernarik onena

TV

DESKONTUAK

%10 familia ugarietara eta Belexeguaixe txarteldunetara ikastetxeko materialerako

Liburunda
Alsasua
liburunda@hotmail.es

Liburunda nº 6 · 948 46 92 01

Fotokopiak
Koadernatzeak
Plastifikazioak
Eskola materiala eta literatura

biek:
asesoria_aholkularitza

enpresa, autonomo
zein partikularrei
aholkularitza zerbitzuak:

_KONTABILITATEA
_ZERGA
_LANA
_MERKATARITZA

Etxarri Aranatz / Atarrabia
948 122 377. www.biek.es

arbizuko kanpineko taberna

Erreserbak:
635 093 140

MENUA 12€ /ASTEBURUKO MENUA, BOKATAK, PLATER KONBINATUAK, PIZZAK, BERTAN JAN EDO ERAMATEKO.

LURESU

ORTOPEDIA

AUDIFONOAK

OPTIKA

PODOLOGIA

LURESU
ALZANIA KALEA 1
ALTSASU
948564695

CodeSyntax

Interneten adituak

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Etxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte
948 576 016 - 609 421 680

nueva imagen

peluqueria ileapaindegia

948 467 074

San Juan 54 ALTSASU

MANUEL BERGERA S.A.

ITURGINTZA · BEROGINTZA
- GASA

MABERSA

948 562 852 · 617 474 961
Zelai, 33 · 31800 ALTSASU (Nafarroa)
mabersa_alsasua@wanadoo.es

iTYRRI
JATETXEA

EDER
TABERNA

948 461 530 · Larrañeta, 7 · Etxarri Aranatz

ORLEGHY
-RENOVABLES-

Biomasa galdarak (pellet, egurra, ezpalak...)
Geotermia eta aerotermia
Instalazio eta mantentze zerbitzua
Pellet salmenta on-line

Tlf y Fax: 948 562 604 | Gipuzkoa kalea, 17 · Altsasu
www.orleghy.com · info@orleghy.com

Oinez Basoarekin, naturari berea



Nafarroa Oinez festa erraldoia da, urte osokoa. Lesakako Oinez lekukoa jaso zenetik makina bat ekitaldi antolatatu dira. Eta horrek naturan bere aztarna uzten du: ekitaldiekin energia kontsumitzen da, baliabide naturalak kontsumitzen dira, hondakinak sortzen dira, berotegi-efektuko gasak isurtzen dira... Horren jakitun, naturari baliabide horiek bueltatzeko asmoz sortu zen Oinez Basoa, 2008an. Izan ere, Nafarroa Oinezekin kontsumitzen diren baliabide naturalak naturari bueltatzea, hori da Oinez Basoaren funtsa.

Lehendabiziko Oinez Basoan, Arbizun, 9 espezieko 5.200 zuhaitz hartuko dituen Oinez Basoa sortu zen. Horretaz gain, anfioendako –bereziki babestuta dagoen baso-igel jauzkariarendako– 2 putzu sortu ziren, haien habitata hobetzeko eta hegazti migratzaileei atsedun-gunea eskaintzeko. 10 urte geroago, Iñigo Aritza ikastolan Oinez Basoa proiektuari jarraipena emango zaio, gure seme-alabak ingurumenaren zaintzarekiko sentsibilizazioan hezteko. Bost proiektu zehatz egingo dira.

10 urtetan 47.000 zuhaitzetik gora landatu dira

2008an jaio zen proiektua, festaren aztarna ekologikoa gutxitzeko asmoz, eta ordutik hona Nafarroa Oinez festak antolatatu diren tokietan –Arbizun, Tafallan, Zangozan, Baztanen, Andosilla-Sartagudan eta Lesakan– 7 Oinez Baso sortu dira. Oinez Baso horiei esker, 10 urte hauetan 47.000 zuhaitzetik gora landatzea lortu da Nafarroa osoan barrena, Nafarroa Oinezek uzten duen elkartasun-aztarna.

Altsasuko Oinez Basoa: 5 egitasmo

Iñigo Aritza ikastolak eta Altsasuko Udalak sinatutako hitzarmenari esker, Oinez Basoan honako lanak egingo dira:

- 1. Landaketa:** Zuhaitz hostotsuen landaketa Usolarrainen, bertako natura-inbentarioa osatuko dutenak.
- 2. Sagu-zaharrendako habia-kutxak kokatuko dira.** Biologo adituek adierazitako lekuetan habia-kutxak edo babeslekuak kokatuko dira sagu-zaharrendako. Gure zonaldean Bechstein sagu-zahar espeziea dago; tamaina ertaineko oihan kiropteroa da, bere zabaltze-eremu guztian espezie arraro gisa kontsideratuta dago eta nagusiki hariztiei lotuta bizi dena. Habia-kutxa artifizialak kokatzeak bere populazioaren hazkundera lagun dezake.
- 3. Kiropteroen inguruko interpretazio kartelak.** Kartelaren edukia eta diseinua Iñigo Aritza ikastolan landuko dira. Kartelak Lehen Hezkuntzako ikasleek sagu-zaharren inguruan egiten duten interpretazioa jasoko du. Diseinua ikuspegi inklusibotik egingo da, eta bere kokalekua habia-kutxen tokiari lotuta egongo da.
- 4. Txuspo Poyoren zuhaitz-etxearen berriztapena.** Duela 10 urte kokatu zen Dantzalekuko haritz basoan. Zurezko etxe hau eusteko ez zen iltze bat ere erabili. Zuhaitz-etxea hartzen duen haritzaren hazkundera dela-eta, doikuntzak behar ditu, zuhaitz inguratzen duten uztaiak egokitzea, besteak beste.
- 5. Oinez Basoaren interpretazio kartela.** Kartelaren edukia eta diseinua Iñigo Aritza ikastolan egingo dira. Kartelak Oinez Basoa proiektu orokorraren eta tokiko proiektuaren berri emango du. Ikuspegi inklusibo aintzat hartuta landuko da.



Etxeko sukaldaritzaren Erretegia:
txuleetak eta arrainak

Eguneroko eta asteburuko menuak
Enkargatutako menuak

948 600 661
ERROTZ-ARAKIL



LA BURUNDESA

www.laburundes.com
948 30 35 05 | info@laburundes.com

IGER
ARKITEKTURA

DESIGNER
CERTIFIED PASSIVE HOUSE DESIGNER

Andoni Igoa 693473951
Inaki Erdocia 647226325

ETXARRI ARANATZ

Eguneko menua
Asteburuko menu berezia
Pintxoak
Bokatak



JUANITO
TABERNA-SAGARDOTEGIA
948 460 404 Arbizu

LIDIA MARTÍNEZ
AKADEMIA

MATEMATIKA
FISIKA
KIMIKA
NATUR ZIENTZIAK
GAZTELANIA
...
MAILA GUZTIAK

BAKEA 1 - ALTSASU - 626 084 133
www.lidiamartinez.es

MARIASUN
ERDOZIA ULAIAR

ARKITEKTURA


Obra berri eta Zaharberritzeak

EET

Erakinen Ebaluatze Txostenak

ETXARRI ARANATZ 665716857
Zugareta 36 - mailasunerdozia@gmail.com

PASTA MARTINELLI



WWW.PASTA-MARTINELLI.COM
948 342 755



De Amicitia boluntarioak Oinezen

De Amicitia Nazioarteko Gobernu Kanpoko Erakundea da, lan-eremuetara boluntarioak bideratzen dituena, auzolanak egiteko. Bada, De Amicitia taldeko 7 boluntario Sakanan izango dira, besteak beste Nafarroa Oinez egunaren harira ingurumen lanak egitera. Aurretik aipatu erakundetik makina bat boluntario aritu izan dira Sakanako zenbait proiektutan lanean, besteak beste Enneco Haritzaren Memoria parkean lanean, Bernoa galtzada

berreskuratzen eta abar.

Nafarroa Oinezko koordinatzaile Jone Aretak aipatu duenez, "De Amicitia boluntarioek Sakanako Mankomunitatearen bitartez jarri dira gurekin harremanetan. Guztira monitore bat eta 6 boluntario etorriko dira, eta Frantziako, Italiako, Errumaniako eta Guayanako jatorria dute".

Urriaren 18an iritsi ziren, ostegunean, eta urriaren 26ra arte egongo dira. "Nafarroa Oinez aurretik hesiak jartzen eta beharrezko laguntza ematen egongo dira eta Nafarroa Oinez egunean eta ondoren garbiketa lanetan, Ingurumen Batzordekoekin batera" gaineratu du Aretak. Horretaz gain, Bakaikura bi egun joango dira, baso lanak egitera, gaztainondoak landatzeko lurra prestatu eta gaztainondoak landatzera. Eta formazioa ere eskainiko dute. "Urriaren 23an Andra Mari ikastolan izango dira eta urriaren 26an Iñigo Aritzak, formazioa eskaintzeko, ingelesez. LH3. zikloan birziklapenaren inguruko formazioa emango dute eta DBHkoekin ekosistemari buruzkoa".

Nork irabaziko du Erronka?

Nafarroako 11 ikastola ordezkatzeko dituzten 12 talde lehiatuko dira Erronka lehiaketan. Lau proba egin beharko dituzte eta lortutako puntuen batuketak erabakiko du txapelduna. Iñigo Aritzak iaz lortutako garaipena defendatuko du eta Andra Mari eta gainontzeko ikastolek lekukoa kentzeko gogor egingo dute lan

Nafarroa Oinez festan gazteen artean urtetik urtera interes handiago sortzen du Erronkak. Zer da? Finean, DBHko 13 eta 16 urte bitarteko ikasleek osatutako taldeen ikastola arteko lehiaketa berezia, kirola, jarduera fisikoa eta abilezia biltzen dituena, ikasleek urtetik urtera kuttunago dutena. Izan ere, Erronka irabaztea ez da eguneroko kontua. Aurtengo Nafarroa Oinez Erronkako V. Edizioa jokatu da, eta 12 talde izango dira lehiatuko direnak, Nafarroako 11 ikastola ordezkatzuz. Tartean bi talde izango dira, Sakanako bi ikastolak ordezkatzeko dituztenak: Iñigo Aritzak taldea eta Andra Mari taldea.

Aurreko urteko Erronka, Lesakako Nafarroa Oinez jokatu da, Iñigo Aritzak ikastolak irabazi zuen. Ondorioz, Iñigo Aritzak ikastolan

egon da Erronkako lekukoa urte honetan guztian. Baina igandean, Altsasuko Nafarroa Oinez egunean, lekuko preziatu hori atzera ere jokoan jarriko da, eta ikusteko dago zein ikastolak lortzen duen urte guztian lekuko preziatuaren jabetza izatea. Iñigo Aritzak iaz lortutako garaipena defendatzen saiatuko da, lekukoak Altsasun jarraitzeko, baina Etxarri Aranazko Andra Mari ikastolak eta gainontzeko ikastolek altsasuarrei lekukoa kentzeko lan gogorra egingo dute.

Esan bezala, 11 ikastola ordezkatzeko dituzten 12 talde lehiatuko dira. Talde bakoitza 12 kidez eta 2 kapitanez osatuta egongo da, eta guztiek 4 proba osatu beharko dituzte. Lau proba horietan lortutako puntuen batuketak erabakiko du zein den Erronkako txapelduna eta

lekukoa zein ikastolara joango den. Probetan ikasleen abilezia, indarra eta abiaduraz gain, buru-argitasuna, jakintza orokorra eta euskaltzaletasuna neurtuko dira, eta alderdi fisikoa zein psikikoa uztartuko dute jokoan jarriko diren lau probek. BIZI Erronka eta onenak irabazi dezala!!!

Lau probak

-1. Oreak (4. gunea, 10:00etan): Bariantza batean dauden ikasle eta ikusle bi talderen artean oreak bilatzea du helburu proba honek. Horretarako, taldeetako partaideak aldatzen joango dira erabateko oreak lortu arte.

-2. Orientazioa (1. gunea, 11:00etan): Mapa bat erabiliz gunean ezkutututa dauden sei postontzi bilatu beharko dira. Bakoitzean dauden argibideei esker jakingo dute zer

Nola lagundu Oinez Basoan?

- Zuhaitzak babestuz: Zuhaitz bakoitzeko 10 euroko ekarpenarekin, denendako izanen den baso baten sorreran lagunduko da.

- Proiektua lagunduz: Bai pertsonalki bai enpresa edota talde baten izenean, ekarpenak 100 zuhaitz baino gehiago babesten badiu, ikastolak proiektua zabaltzeko erabiliko dituen baliabide eta tresnetan laguntzailearen berri emango du.

Nafarroa Oinez nabarmendu dute Oinez Basoaren alde egiten duenak gure mendi eta ekosistemak babestu eta aberasteaz gain, euskara mantentzen eta indartzen lagunduko duela.



Nafarroa Oinezekin bat

www.guaixe.eus

lacturale 10 URTE
ZAPORE GORENA 2018
Honako saria, zurea da ere

www.lacturale.com

egin aldiro. Hiru postontzi dira guztira, beraz, hiru azpi-proba egin beharko dira.

-3. Barazki kanibala (3. gunea, 12:00etan): Soka batetik zintzilik dagoen barazki sorta batetik ahalik eta jaki gehien hartu behar da. Baina horretarako ezin izango dira eskuak erabili, ahoa baizik. Lau laguneko taldeak lehiatuko dira, eta elkarri lotuta egongo dira, horietatik bik, begiak estalita.

-4. Oztopoz oztopo (2. gunea, 13:00etan): Salto egin, sokak heldu, zakuak altxatu, korrika egin eta abar. Denetatik egin beharko da azken proba honetan.

Egingo diren lau probak dagoneko ezagutzen dituzte parte-hartzaileek, Nafarroa Oinezko YouTube kanalean daude ikusgai.



Andra Mari ikastola

Erronkariak: Irantzu Lasa, Pello Altzelai, Aritz Oiarbide, Katrin Caro, Uxue Diez de Ulzurrun, Maialen Biain, Oihan Arana, Alaitz Gil, Oinatz Carreño, Aimar Flores, Mainer Maiz eta Maddi Mariñelarena.

Bideo lehiaketa

Nafarroa Oinezko Erronka lehiaketarekin batera, duela 3 urte baztandarrek martxan jarritako Erronka bideo-lehiaketari jarraipena eman zaio ere aurten (Rural Kutxako Bideo Lehiaketa). d Horrela, ikastola baikoitzak bideo bat grabatu du bere taldea aurkeztuz, eta bideo horiek bozkatzeko aukera dago. Horretarako, honako loturan sartu behar da: <https://erronka-oinez.joveninhas-talos30.com/oinez>. Ikasleek irudimena, gogoak eta ilusioa dutela argi ikusten da.

Epaimahaia ondoko sariak banatuko ditu: sari nagusia (600 euro ikastolarendako), bigarren saria (400 euro ikastolarendako) eta hirugarren saria, ikusle goaren saria (200 euroko saria ikastolarendako).

Iñigo Aritza ikastola

Erronkariak: Unai Irigoien, Ander Goikoetxea, Gorka Ruiz, Ainhoa Agirre, Irati Lumberras, Alaitz Gabirondo, Nahia Gil, Izaskun Landa, Naiara Ayerbe, Amair Zubiria, Oihan Ginea, Iker Saturio, Araitz San Roman eta Jon Navarro.





ZELAI

albaitaritza



Maite Poveda Larraza
Zelai 150 Altsasu
948563011






MUGAÍPE
AISIALDIKO BEGIRALEAK

Adin ezberdinetako ikasleentzako kanpaldiak antolatzen ditugu

mugaípe.aisialdia@gmail.com
669 47 58 53
www.mugaípe.com

LOTERIAS IMAZ



ADMÓN . LOTERIAS Nº1 31800 ALTSASU (NAVARRA)
TEL.: 948 563 466 loteriasimaz@gmail.com

"Epe ertainean doikuntza batzuk egingen ditugu"

MARTA IGOA ERRO NAFARROA OINEZKO TALDE IRAUNKORREKO KOORDINATZAILEA

Nafarroa Oinez, Nafarroako ikastolen festa da. Urtetik urtera egoitza bat hartzen duen festa ibiltaria. Egoitza aldatu arren, batean eta bestean antolakuntza premia berak dituen ospakizuna da. Urtetik urtera mantentzen den egitura bat badu ospakizunak eta horren ardura du etxarriar batek.

Zein da zehazki zure egitekoa Nafarroa Oinez?

Bada talde iraunkor bat eta niri talde hori kudeatzea dagokit. Eta, gero, paraleloki ikastolan sortzen den talde edo egitura hori ere koordinatzea. Hori da nire egitekoa lau hitzetan esanda.

Horrek bilera asko esan nahi du?

Askok. Batetik, talde iraunkor horrek eskatzen duenaren baitan. Eta, bestetik, ikastolan sortzen den egitura horri lotuta. Horretan, normalean 12 edo 13 batzorde aritzen dira lanean. Horiek ere kudeatu behar dira. Laguntza izaten dut, urtero tokiko koordinatzailea izaten delako. Berak lan horren puska handi bat hartzen du.

Ez dut pentsatu ere egin nahi azken asteetako zure agenda zein izan den!

Etengabekoa da. Ez dago atsedunik. Ez dago jai egunik. Hasiera batean gure lan metodoak ez dio inprobisazioari lekuri uzten. Edo behintzat hala izan dadin saiatzen gara. Beraz, aurretik lan egiten dugu, epeak marrazten ditugu. Egitekoak kronograma bati lotuta gauzatzen ditugu. Hala ere, gure planifikazio horretan aurreikusten da inprobisazioak bere tartea izanzen duela. Azken



egunak horrela-koak izaten dira: uste ez zenuen ez dakit zer konpondu behar dela, aurretik aurreikusitako ez den arazoren bati aurre egin behar zaio, eta halakoak. Baina, esan bezala, gure lan metodoak alde aurretik aurreikusten dituzten egin beharreko guztiak. Azken egun hauetan lan asko egin behar da. Jende asko koordinatu behar da. Orain da Nafarroa Oineza

ukitu daitekeen zerbait bezala ikusten duzu. Hortxe dago jende guztia pil-pilean, lanean. Ilusioz beteta. Hau da politena. Oso intentsuna da, baina niretako garai politena da.

Uzta jasotzean nekazariak zerura begira egoten dira. Eguraldiarekin inprobisatu beharko duzue, ezta?

Horrek ematen dio beti tentsio puntu garrantzitsu bat. Batzuetan aurreko egunetan eguraldi ona egoten da eta nahiko lasai ibiltzen gara. Eta, beste batzuetan, aurtengo kasuan bezala, denok ari gara zeruari begira. Tentsio puntu hori azken astean nahiko indartsua izaten da. Egia da Nafarroa Oinez ez dela Oinez eguna bakarrik, Oinez Urtea baizik. Oinez eguna da urte bete horri agurra egiteko jaia. Ikastolak ikasturte akaberan bere festa antolatzen duen moduan. Eta, bai, benetan penagarria da lan izugarria egitea eta gero eguraldiagatik, nolabait, zapuztea. **Noiztik talde iraunkorreko koordinatzaile?** Andra Mari ikastolak 2009an Oinez antolatzen eta bertako koordinazioa egin nuen. 2010ean koordinazio talde orokorrean sartu nintzen. Ardura nagusia 2012an hartu nuen. **Non duzu burua, aurtengo Nafarroa Oinez edo heldu den urtekoan?**

Bietan. Orain protagonismoa Iñigo Aritzak, Altsasuk dauka, normala den bezala. Baina ni hurrengo Oineza antolatuko duen ikastolarekin otsaitetik ari naiz lanean. Paraleloki bi tokitan ari naiz. Hemen urtearen momentu batean gaude. Eta kasu honetan Tuteran beste momentu batean gaude. Baina bi tokietan batera.

Aurtengo Oinez dena bideratuta dago?

Ongi bideratuta gainera. Altsasuk ikastola benetan eredugarri izan da urte guztian. Ohiko erronkei eusteaz aparte, beraiek horren gainetik ekarpena egin dute. Benetan, urteko martxa ona izan da; inplikazio handia, konpromiso izugarria, lan giro ona izan dugu. Ez da animatu beharrik, eurak bakarrik animatzen dira. Urtean zehar erakutsi dute euskararekin, Ikastola Proiektuarekin, Nafarroa Oinezekin duten benetako konpromisoa. Altsasurekiko nire balantzea izugarri ona da.

Ikastola antolatzaileak noiz hasten dira Nafarroa Oinezko lehen antolaketeekin?

Normalean aurreko urteko ilbeltza edo otsaila aldera aurreneko bilera izaten dugu. 2019ko Nafarroa Oinez antolatuko duen Tuterako Argia ikastolarekin lehen bilera aurtengo otsailean izan genuen. Ia bi urte. Azkenean kontuan hartu behar da hau boluntarioekin antolatzen dugula. Bada egitura iraunkor bat. Baina gero ikastolan beste egitura bat antolatu behar da. Eta egitura horretan 120-150 lagun behar dira. Profil jakin batzuk, garatu behar dituzten lan arabera. Pertsona horiek guztiak 12-13 batzordeetan egoten dira. Batzorde bakoitzak bere zeregina du. Zeregin horren baitan saiatzen gara jendea batean edo bestean kokatzen, duen gaitasun, zaletasun edo lanbidearen arabera. Hori guztia alde aurretik antolatuta behar da. Horrek denbora eskatzen du: jendea identifikatu, taldeak osatu, prestakuntza... Eta hortik abiatu. Dezente lehenago hasi behar dugu, bai.

EDARI BANATZAILEAK  DISTRIBUIDOR DE BEBIDAS

DISTRIBUCIONES URBASA

Avda Urbasa nº 25 Olazti **948 467 783-670 318 658**
distribucionesurbasa@hotmail.com

López de Goikoetxea
Harategia
Etxean Hazitako Haragia

 **948 56 21 57**
617 76 65 36 Urdiain

Ez da berdina izanen ikastola handiekin eta txikiekin aritzea.

Ez dauka zerikusirik. Bakoitzak bere abantailak eta desabantailak ditu. Orokorrean, jendeari iruditzen zaio ikastolan handi batek abantailak dituela txiki baten aurrean. Bai, logikoa denez, bada familia kopuruari lotuta. Hori ezin da ukatu. Baina gero beste arlo batzuetan desabantaila handiak dituzte ere. Ikastola handietan, esaterako, familiek ez dute elkar ezagutzen. Egitura horren handia denean, oso motela da martxan jartzeko. Auzolanaren kontua ere ez da modu berean bizitzen ikastola handi batean eta txiki batean. Ez du zerikusirik. Ikastola txikietan gauza gehienak auzolanean egiten dira. Batzuetan dena egiten da auzolanean. Horrek ikastolak lan egiteko duen moduari, nolabait, ibilbidea ematen dio. Auzolana, konpromisoa... ohitura edo kultura izaten da ikastola txikietan. Nafarroa Oinez heltzen delarik intentsitatea handitu egiten da, baina, nolabait, ikastolaren izaerari eustea da. Ikastola handietan hori zailagoa da. Komunitatea bera oso sakabanututa dago. 1.000 familia dituen ikastola batek ezin du 120 dituen batek duen kohesio hori izan. Nafarroa Oinezen baitan hori sarritan aipatzen dugu. Oinezak aukera ematen diela ikastola nahiko koxkorak direnei: ikastolaren izaera hori berreskuratzea, ezagutzea edo dena delakoa.

Modu berean, desberdina da ere hegoaldean edo iparraldean aritzea. Hor, kulturari dagokionez, sekulako aldea dago. Nafarroa oso anitza da eta izaera izugarri nabaritzen da, lan egiteko moduan... Sekulako eragina du. **Gauza batzuk urtero errepikatzen dira. Zuk zein lan egiten duzu?**

Ia-ia guztiak. Niri talde guztien kudeaketa tokatzen zait. Talde iraunkorrean nirekin batera Patxi Arellano (segurtasun teknikaria) eta Unai Arellano (Txikiak Handi ekimeneko koordinatzailea) aritzen dira. Hirurok aritzen

gara. Nafarroako Ikastolen Elkarte Euskal Herrikoaren barruan dago (EHIE). Horri lotuta han beste egitura bat dugu: bost jaietako koordinatzaileak elkartzen gara. Bost jaien inguruan aritzen den koordinatzaile bat badugu ere. Momentu batzuetan EHIEtik komunikazio aldetik sartzen den beste lagun bat badago.

Nafarroa Oinez egun bakarra izatetik Oinez urtea izatera pasa zen. Zergatik?

Jatorrizko ideia egun bateko ospakizuna izatea zen; euskararen aldarrikapena egitea, euskaldunon eskubideen aldeko jardunaldia. Hori guztia jai giroan. Hala sortu zen eta hala izan zen urte batzuetan. Nafarroa Oinezek aurten 38 urte beteko ditu. Urteetan zehar ikastolek ekarpenak egin dituzte. Euskara bai, baina beste esparru batzuetan. Habian jarri zen lehenbiziko ekimen iraunkorra Artea Oinez izan zen, 90eko hamarkadan Lizarrako ikastolan eman zioten hasiera. Ondotik etorri diren ikastolek eutsi diote eta iraunkor bilakatu da. Gero beste batzuk sortu dira: Oinez Basoa, Txikiak Handi, Erronka...

Gaur egun guk Nafarroa Oinezko egunari sekulako garrantzia ematen diogu. Berez, hori da bilgune nagusia. Nafarroan Oineza ikastolen jaia izateaz aparte euskararen festa ere bada. Horri ezin diogu inolaz ere garrantzirik kendu. Euskaldunon topagune nagusienetako bat da Nafarroan. Baina urtean zehar antolatzen diren jarduera horiek ere pisu handia hartu dute eta, gure ustez, eguna bezain garrantzitsuak dira. Gainera, ekimen horiek euskara dute oinarri. Baina, horretaz aparte, badituzte beste helburu batzuk.

Oinez eguneko egitaraua aldatu da ere.

Gizarteak izan duen garapena izan dute ikastolen jaiak. Hasieran, Nafarroa Oinez antolatzen zelarik, babesleek egiten ziren urratsen baitan egiten zuten ekarpena. Hau da, zenbat eta km gehiago ibili orduan eta diru ekarpen handiagoa zen. Kontrol antze-

koak zeuden eta zigilua jartzen zizuten. Eta gero zuk erakutsi behar zenuen zenbat pauso eman zenituen. Hori izan zen sorrera. Hortik zena ere: Nafarroa Oinez.

Eredu harrek bisitariaren parte hartzea bultzatzen zuen: zuk jaira joanda parte hartu behar zenuen; zure ekarpena egiteko eta euskarari benetan bultzada emateko ibili egin behar zinen. Horrek gizartearen ere garapen bat izan du. Gaur egun aisialdiari lotu-

beste kontu bat. Nafarroako Ikastolen Elkartearen bada talde bat, Oinez Batzordea deitzen duguna, eta hor horretan ari gara. Ekimen iraunkorren, urteko jarduera programaren eta egunaren azterketa sakona egin dugu. Azterketa horren baitan emaitza batzuk izan ditugu. Ikastolekin ere kontsultatu da. Informazio hori guztia oinarri hartuta, azterketa horren arabera, epe ertainean, doikuntza batzuk egitea.



tako eskaintza anitza da. Gure ohiturak eta kultura aldatu dira. Gaur egun jende askok beste jarrera bat ekartzen du: jarrera nahiko pasiboa, nahiko kontsumitzailea; banator hona eta ea zer eskaintzen didaten, pixka bat, zer emanen didaten zain. Guk nahiko genukeena da jendeak jarrera parte-hartzaileagoa izatea. Hori bultzatu nahi dugu.

Jakina da elkartearen festaren inguruan hausnarketa egiten ari zaretela. Zertan da?

Nafarroan aukera asko jorratzen dira. Esaterako, mahaigaineratu da Oineza behar bada toki finko batean ospatzeko aukera. Hori da beste gauza batzuekin batera aztertuko den

Igandean zein lan izanen duzu egiteko?

Koordinazio gunean egotea tokatzen zait. Aste guztian muntaia irarripena egin diogu Patxi eta biok. Ziurtatuko dugu muntaia segurtasun planaren arabera egin dela. Gure gune ibiliko gara, batzordeekin detaile guztiak errepasatzen. Segurtasun planaren arabera funtzionatzeko modu bat dugu eta igandean koordinazio gunean, ikastolan, hainbat estamentu izanen dira, eta haiekin gu eta batzorde batzuetako buruak ere. Guri behatzea eta kontrolatzea tokatzen zaigu. Ezustekoak gertatuko balira hori guztia bideratzea; trafikoa eta gainerako guztia.

LINEA INFORMATICA

www.lineainformatica.es

ANALISIA ETA PROGRAMAZIOA

- Sistema informatikoen diseinua, instalazioa eta konfigurazioa
- Neurritan egindako aplikazio integratuen garapena (E.R.P. softwarea)
- Hardwarearen, softwarearen eta sistemen mantenu integrala

correo@lineainformatica.es | Ronda de Las Ventas, 2

31600 BURLATA (NAFARROA) | Tel. 948 13 03 26 - Fax 948 12 02 89



"Ikastola puzzle antzeko bat da, eta puzzle horretan bakoitzak bere pieza jartzen du"

Nafarroa Oinezean euskararen eta ikastolen alde lan egiten duten taldeei aitortza egiten zaie. Iñigo Aritza ikastolak bi talde omenduko ditu: 'paella egileak' eta ikastolako langileak. Sonia Lizarraga Ondarra irakasleria ordezkaria izanen da.

1 Zer nolako garrantzia dute langileek ikastolan?

Ikastola familia bat da eta familia bezala ulertu behar dugu. Familia esaten dugunean alor desberdinak hartzen ditugu: ikasleak, irakasleak eta familiaz gain ikastola aurrera egiteko eta funtzionatzeko beharrezkoak diren beste hainbat zerbitzu daude. Ikastola puzzle baten antzerakoa da eta puzzle horretan bakoitzak bere pieza jartzen du, eta eman beharrekota ematen dugu. Egunerokoa dagoen jendea, baina ikusten ez dena omenduko dugu.

2 Zeintzuk dira ikastola osatzen duten eta ikusten ez diren beste piezak horiek?

Gidaritza eramaten duen zuzendaritza beharrezkoa da, idazkariak bulegoko eta beste hainbat lan egiteko beharrezkoak dira, jantoki zerbitzua eskaintzen dugunez jantokiko langileak egon behar dira ere. Autobuseko zainzaileak ditugu; gaur egun derrigorrezkoak direnak. Orientazio departamentua ere ezinbestekoa da. Ikasleen hezkuntza prozesu guztiaren garapena jarraitzen du orientatzaileak. Garbiketa ere ezinbestekoa da, kontuan hartuz, gainera, mendian gaudela. Irakasleok ikaslearen etapa bakoitzean inplikatzeko gara buru belarri. Ez da arlo akademikoan bakarrik.

Nik uste ikastolek horretan badutela garrantzia, langileok ez gara mugatzen akademikoki irakastera bakarrik. Inplikazio handia dago.

3 Guztira zenbat langile zarete?

Iñigo Aritza ikastolan 51 langile gara. Klaustroa 33 irakasle osatzen dugu. Azken urteetan izan dugun irakasle kopuru handiena dela esan nahi da. Ikasleak zaintzen dituzten zainzaileak ditugu ere, bi. Idazkaritzan bi dira, zuzendaritzan bat, garbiketara lau pertsona daude mendiko ikastolan eta beste bi Txioan, eta jantokian bi pertsona lan egiten dute. Autobusean ere bi zainzaile daude. Txioan sei pertsona lan egiten dute.

4 Familia bat zarete diozu, harremana, beraz, estua da.

Ikasleen garapena eta bilakaera osoa ezagutzen dugu. Harremana oso estua da. Ez da bakoitzak bere papera egiten duela ondokoari begiratu gabe. Azkenean hartu eman bat dago. Urtero bidai bat egiten dugu langile guztiok.

5 Beraz, omenaldia garrantzitsua da langileendako.

Ikastolaren funtzionamendurako oso garrantzitsua da guztion lana, eta omenduak izatea eta kontuan hartuta izatea beti polita da. Ba-

tzuetan pentsatzen dugu egiten duguna baloratuko den edo ez. Eta omenaldian baietz ikusten da.

6 Zergatik irakaslea izan?

1981eko Nafarroa Oinezko kamiseta hartzen dudanean hunkitzen naiz. Nire bizitza laburtzen du. Zazpi urte nituen Nafarroa Oinez hori egin zenean eta gogoan dut San Pedron egon ginela. Etxarri Aranazko ikastolako ikaslea ere izan naiz. Ikasketak egiten ari nintzanean lagun batek esan zidan lanpostu bat zegoela Altsasun ordezkapenak egiteko eta izena eman nuen. Elkarrizketa egin nuen eta lanean hasi nintzen. Azaroan hogeitau urte eginen ditut lanean hasi nintzela. Nire bizitzaren erdia hemen eman dut. Ikastola bizitzeko modu bat da. Sentimendu bat da.

7 Zer ematen dizu irakaslea izateak?

Irakasle izatea gustatzen zait. Gustatzen zait ikasleekin egotea, hartu eman hori egotea, eta gustatzen zait gauzak erakustea. Gustukoa dut, bai. Gustura etortzen naiz lanean. Nire lana ez da klase bat eman eta banao. Ez. Gustatzen zait ikasleekin inplikatzeko eta haiek gustura sentitzea. Oso harreman estua da. DBHko ikasleekin nago ni eta gora beherak egoten dira nerabe garaian

daudelako, baina hemendik ateratzen direnean eta denbora pasatzen denean gerturatu dira eta haien bizitzari buruzkoak kontatzen dizkirate eta gertutasun hori da politena.

8 Momentu txarrak ere egonen dira, ez?

Azkenean pertsonekin lan egiten dugu eta denak ezberdinak gara. Elkar ulertu behar dugu, adostasun batera iritsi behar gara. Harreman horiek zailak dira. Horrela da eta eramaten ikasi behar dugu; batzuekin ongi moldatzen zara eta besteekin okerrago. Bakoitzak jarri behar du jarri beharrekota.

9 Nafarroa Oinezaren eguna iritsi da. Nolako izan da urte hau langileendako?

Nafarroa Oinezek jende asko mugitzen du. Familiak mugitzen ditu, irakasleak mugitzen ditu eta langileak mugitzen ditu. Bertan egon gara bakoitza alor ezberdinetan lan egiten. Batzuk pertsonalaren batzordean egon dira, beste batzuk jardueretan, ibilbidean, komunikazioan, grafismoan... Bakoitza bere burua ongi sentitzen duen alor horretan egon da lanean. Buru berri aritu gara. Bilerak egiten eta lanean. Azken egunetan eguraldiari begira egon gara. Guk nahi dugu jendea etortzen denean gustura

egotea. Ibilbidea eta zonaldea oso politak dira. Dauden ekitaldiak ere oso politak dira. Urte guztian zehar lan asko egin da eta bere fruituak eman dituela ikusi nahi dugu. Dena ongi joatea nahi dugu, ezbeharriz gertatzea.

10 Baina zuek lanean egongo zarete.

Lanean, bai. Omenaldia korrika joango gara eta gero berriro lanean. Omenaldia langileetako batzuk joango gara gainontzeko guztiak lanean egongo direlako. Paradoxikoa da, baina lanean egongo dira eta omenaldia goazenak ere gero lanera itzuliko gara. Politia izanen litzateke ikastolaren bilakaeran egondako pertsona guztiak egotea, baina ordezkariak egonen dira bakarrik. Ni irakasleriaren ordezkaria izanen nintzela esan zidaten. Baina langile guztiak egonen dira ordezkatuak.

"Ikastola bizitzeko modu bat da"

11 Omenaldia lortia kultur gunean izanen da. Zerbait aurreratu dezakezu?

11:30ak aldera izanen da. Beste omenduek, paella egile taldeak, zinta moztuko du eta ondoren protokoloa ibilbidetik pasako da eta lortia kultur gunera joanen da gero. Orduan, iristen denean hasiko da omenaldia. Ordu bat inguru iraungo du eta oso polita izanen da. Argazki zaharrek bideo baten emenaldia egonen da, besteak beste, eta ondoren, otamena.